



Hizkuntza-normalizazioko teknikariaren azterketa

1. Baliokidetzak ezartzen dituen uztailaren 4ko 187 Dekretuaren arabera, zein ez da zuzena?

- a) Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 1. hizkuntza-eskakizuna B1ekin parekatzen da.
- b) Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna B1ekin parekatzen da.
- c) Euskaltzaindiaren D agiria C1ekin parekatzen da.
- d) Hezkuntzan euskaren erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleei aplikatzeko Irakaspostuen 2. hizkuntza-eskakizuna C1ekin parekatzen da.

2. Adierazi zenbat ekintza-ildo korporatibo garatu diren 2020ko Pazientearen Segurtasun Estrategian:

- a) Hamahiru ildo korporatibo.
- b) Hamar ildo korporatibo.
- c) Hamabost ildo korporatibo.
- d) Ez dago ekintza-ildoen kopuru zehatzik

3. Bikain euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa gidaren arabera, agiria lortzeko gehienez lor daitezkeen puntuetatik zenbatekin gutxienez lortzen da goreneko aitortza?

- a) 750 punturekin.
- b) 900 punturekin.
- c) 800 punturekin.
- d) 850 punturekin.

4. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana. Euskaren eskakizuna derrigortasun data igarota daukaten plazetako ordezkapenetan. Zein da erantzun zuzena?

- a) Derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetako ordezkoak hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eduki behar dute lanpostua bete eta handik 6 hilabetera.
- b) Derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetako ordezkoak hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eduki behar dute lanpostua bete eta handik 9 hilabetera.
- c) Derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetako ordezkoak hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eduki behar dute lanpostua bete eta handik 12 hilabetera.
- d) Derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetako ordezkoak hizkuntza eskakizuna egiaztatuta eduki behar dute lanpostua betetzeko unean.

5. Bikain-Euskaren Kalitate Ziurtagiriaren hartzaileak ezin dira izan...

- a) Sozietate publikoak.
- b) Lau eguneko plantilla ez duten pertsona juridiko nahiz fisikoak.
- c) Toki eta Foru Administrazioak.
- d) Lantoki fisikorik ez duten erakundeak.

6. Bikain-Euskaren Kalitate Ziurtagiriaren Artezkaritza Kontseiluko kide da:

- a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburua.
- b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko zuzendaria.
- c) HABEko zuzendaria.
- d) IVAPeko zuzendaria.

7. Aitor Montes familia medikuaren iritziz osasungintzak euskararen garapenean duen garrantzia lau faktore hauei zor zaio. Aukeratu lau faktoreak jasotzen dituen erantzuna:

- a) Osakidetzak egiturari, osasungintza alderdi intimoa izateari, prestigioari eta jardueraren izaera teknikoari.
- b) Osakidetzak duen tamainari, osasungintza alderdi intimoa izateari, prestigioari eta jardueraren bolumenari eta hedapenari.
- c) Osakidetzak duen tamainari, osasungintza alderdi soziala izateari, prestigioari eta jardueraren bolumenari eta hedapenari.
- d) Osakidetzak duen tamainari, osasungintza alderdi soziala izateari, sektorearen balio ekonomikoari eta hedapenari.

8. 67/2003 Dekretuaren arabera, salbuesteko edozein prozeduratan, prozedura hasi eta zenbat hilabete igarota Osakidetzak Euskal Osasun Zerbitzuak esanbidez erabakirik hartu ez badu eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko da?

- a) 3 hilabete.
- b) 9 hilabete.
- c) 6 hilabete.
- d) 12 hilabete.

9. Bikain ziurtagiri maila bat duen erakunde batek ezingo du ebaluazioa berriro eskatu harik eta eskatutako azken ebaluazioari dagokion ebazpena eman eta zer epe pasatu arte?

- a) 6 hilabeteko epea pasatu arte.
- b) 18 hilabeteko epea pasatu arte.
- c) 12 hilabeteko epea pasatu arte.
- d) 24 hilabeteko epea pasatu arte.

10. OSATEKen Hitzarmen Kolektiboaren 6. artikulua arabera, aldi baterako kontratatutako langileek lanaldi jarraitu hau baino gehiago egin ahal izango dute:

- a) 9 ordu egunean.
- b) 12 ordu egunean.
- c) 15 ordu egunean.
- d) 16 ordu egunean.

11. Bikain ziurtagiria lortzeko prozesuan gogobetetasun-inkestei dagokienez, zein da guztiz egia?

- a) Erakundeek bi unetan bete beharko du gogobetetze-inkesta: prestakuntza-saioaren bukaeran eta prozesuaren amaieran. Ebaluatzaileek prozesuaren amaieran beteko dute inkesta.
- b) Ebaluatzaileek zein erakundeek prozesuaren amaieran beteko dute inkesta.
- c) Ebaluatzaileek zein erakundeek prestakuntza-saioaren bukaeran eta prozesuaren amaieran bete beharko dute inkesta.
- d) Ebaluatzaileek prestakuntza-saioaren bukaeran eta prozesuaren amaieran, erakundeek eta prozesuaren amaieran bete beharko dute inkesta.

12. Zein EZ da Bikaineko ebaluatzaileen baldintza edo betekizuna?

- a) Erakundeetan erdi mailako kargua izatea gutxienez.
- b) Euskaraz ondo aritzea, ahoz zein idatziz.
- c) Gutxienez bost urteko esperientzia profesionala edukitzea.
- d) Ofimatika programak (Word, Excel, etab.) erabiltzen jakitea.

13. Erakunde ordezkariak euskara-batzordea, segimendu-taldea, etab. sustatzen dituzte eta horietan parte hartzen dute. Pertsonalki jakinarazten diete hizkuntza-politika erakundeak osatzen duten pertsonari. Ahalegindu diren pertsonak eta taldeak aintzatesten dituzte. Aurreko baieztapena Bikain ziurtagiriaren zein ardatzi dagokio?

- a) Informaziorako edota komunikazio tresnak.
- b) Lidergoa eta parte-hartzea.
- c) Hizkuntzaren kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak.
- d) Langileen kontratazioa eta barne-sustapena.

14. Aldahitz proiektuko Uler-saioak metodologia zein mailatako ikasleentzat dago diseinatua?

- a) 0-A1 mailakoentzat.
- b) 0-A2 mailakoentzat.
- c) 0-B1 mailakoentzat.
- d) 0-B2 mailakoentzat.

15. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 5. artikulua araberak, zein da Euskadiko osasun sistemaren azken helburua?

- a) Biztanleriaren osasun-maila mantentzea, berreskuratzea eta hobetzea.
- b) Biztanleriaren maila soziosanitarioa mantentzea eta hobetzea.
- c) Biztanleriaren osasun-maila berreskuratzea bakarrik.
- d) Biztanleriaren maila soziosanitarioa berreskuratzea.

16. Zein da Aldahitz Ulerrizketa metodologiaren lehen zutabea?

- a) Euskara ulergarria erabiltzea.
- b) Egiaztatze jokabidea.
- c) Ele biko elkarrizketak.
- d) Aurreko hiruetatik bat ere ez da lehen zutabea.

17. 67/2003 Dekretuaren arabera, nori aurkeztu behar dio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak derrigortasun daten proposamena txostena egin dezan?

- a) HPSi.
- b) HABEri.
- c) Osasun Sailari.
- d) IVAPi.

18. 123/2008 Dekretua. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden jendeari begirako produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduei bete beharreko baldintzak. Hautako zein da esaldi zuzena?

- a) Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 10 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea, Dekretuko 13.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.
- b) Jendeari saltzeko gunearen azalera 400 metro karratutik gorakoa duten establezimenduak izatea, Bilbon, Gasteizen, Donostian edo elebidunen proportzioa %33 baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta badaude.
- c) Jendeari saltzeko gunearen azalera 300 metro karratutik gorakoa duten establezimenduak izatea, Bilbon, Gasteizen, Donostian edo elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta badaude.
- d) Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 20 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea, Dekretuko 13.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

19. 86/1997 Dekretuaren arabera, zer izen du atalak bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean?

- a) Jendaurreko atala.
- b) Atal berezia.
- c) Gizarte atala.
- d) Atal orokorra.

20. OSATEK SAn, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren zein maila da lanpostu guztiei esleitzen zaiena?

- a) C1.
- b) B1.
- c) B2.
- d) Maila lanpostuaren araberakoa izango da.

21. Aitor Montes familia medikuaren iritziz euskara(k) osasun arloan...

- a) Bidegurutzean dago.
- b) Aurrerapen handiak egin ditu.
- c) Gaixo dago.
- d) Ez du batere aurrerapenik egin.

22. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei dagokienez, OSATEKen...

- a) OSATEKek egindako edozein motatako argitalpenak ere, EAEn banatzekoak badira, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira. Argitalpen horietan euskarari emango zaion lekua, gutxienez **% 75**koa izango da.
- b) OSATEKek egindako edozein motatako argitalpenak ere, EAEn banatzekoak badira, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira. Argitalpen horietan euskarari emango zaion lekua, gutxienez **% 40**koa izango da.
- c) OSATEKek egindako edozein motatako argitalpenak ere, EAEn banatzekoak badira, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira. Argitalpen horietan euskarari emango zaion lekua, gutxienez **% 60**koa izango da.
- d) OSATEKek egindako edozein motatako argitalpenak ere, EAEn banatzekoak badira, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira. Argitalpen horietan euskarari emango zaion lekua, gutxienez **% 50**koa izango da.

23. Zer da Aldahitz proiektua?

- a) Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen proiektua da.
- b) Hizkuntza-eskubideen babesa aztergai dituen proiektua da.
- c) Hizkuntza-erabileraren eragileak aztergai dituen proiektua da.
- d) Hizkuntza-irakaskuntzaren eragileak aztergai dituen proiektua da.

24. Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua araberaz, nork erraztuko du aisiaren erabilera egokia?

- a) Botere publikoek.
- b) Botere pribatuek.
- c) Botere publiko eta pribatuek.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

25. OSATEK SAn euskararen erabilera normalizatzeko plana (2018-2022) bat dator honekin:

- a) OSATEK SAn euskararen erabilera normalizatzeko bigarren plana da.
- b) OSATEK SAn euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana da.
- c) OSATEK SAn euskararen erabilera normalizatzeko bosgarren plana da.
- d) OSATEK SAn euskararen erabilera normalizatzeko hirugarren plana da.

26. Hautetako zein baieztapen da zuzena?

- a) OSATEKek euskararen gutxieneko presentzia ziurtatuko du EAEn egiten dituen ekitaldi, jardunaldi, kongresu, hitzaldi, mahai-inguru, aurkezpen, prentsaurreko eta abarretan. Gutxieneko presentzia hori ahoz % 10ekoa eta idatziz % 50ekoa.
- b) OSATEKek euskararen gutxieneko presentzia ziurtatuko du EAEn egiten dituen ekitaldi, jardunaldi, kongresu, hitzaldi, mahai-inguru, aurkezpen, prentsaurreko eta abarretan. Gutxieneko presentzia hori ahoz % 20koa eta idatziz % 40koa.
- c) OSATEKek euskararen gutxieneko presentzia ziurtatuko du EAEn egiten dituen ekitaldi, jardunaldi, kongresu, hitzaldi, mahai-inguru, aurkezpen, prentsaurreko eta abarretan. Gutxieneko presentzia hori ahoz % 25ekoa eta idatziz % 50ekoa.
- d) Aurreko guztiak ez dira zuzenak.

27. Kudeaketa aurreratua. Zelan deitzen da erakunde baten jarduerak modu sistematikoan egiteko oinarritzko metodologia etengabeko hobekuntza zikloa?

- a) PCAD.
- b) PDAC.
- c) PDCA.
- d) PCDA.

28. 86/97 Dekretuaren arabera, hizkuntza eskakizunen proben edukia eta forma finkatzea dagokio erakunde honi:

- a) IVAP.
- b) HPS.
- c) EHU.
- d) HABE.

29. Bikain ebaluatzaileen klubeko partaideak honako hauek izan daitezke:

- a) Kanpo-ebaluazioa jaso edo jasotzeko eskabidea egin duten erakundeetako langileak.
- b) HABEren euskalduntze teknikariak.
- c) Hezkuntza alorreko profesionalak.
- d) Kalitate-sistematako profesionalak.

30. Zein esparruak du, 67/2003 Dekretuaren arabera, lehen mailako lehentasuna?

- a) Atentzio espezializatuak.
- b) Zerbitzu administratiboak.
- c) Lehen mailako atentzioak.
- d) Zerbitzu orokorrak.

31. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren 7.2 artikulua araberaz, hamalau urtetik beherako datu tratamendua, adostasunean oinarrituta, legezkoa izango da, baldin eta:

- a) Guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularren adostasuna badago, guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrek zehazten duten irismenarekin.
- b) Ez da beharrezkoa guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrek zehazten duten irismena jasotzea.
- c) Ez da beharrezkoa guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularra nor den adieraztea.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

32. 67/2003 Dekretuaren arabera, zein mailaren baliokidea da Osakidetzako 4. hizkuntza eskakizuna?

- a) Hizkuntza Eskolako Ofizialaren 4. maila gaindituta.
- b) IVAPek egiaztatutako 4 hizkuntza eskakizuna.
- c) EGA eta baliokideak diren egiaztapen zein diplomak.
- d) Hizkuntza sistemako 2 hizkuntza eskakizuna.

33. 67/2003 Dekretuaren arabera, nori ematen zaio baimena Dekretuak ezarritakoa betetzeko behar diren xedapenak eman ditzan?

- a) Osasun sailburuari.
- b) Osasun sailburuordeari.
- c) Osakidetzako zuzendari orokorrari.
- d) Aurreko guztiei.

34. 86/1997 Dekretuaren arabera, hizkuntza normalizatzeko prozesua bideratu eta taxutzeko araudia EZ da esparru honetan ezarriko:

- a) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak.
- b) Ertzaintzako langileak.
- c) Foru eta toki-administrazioak eta bere erakunde autonomoak.
- d) Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan.

35. Zein baieztapen EZ dator Nazio Batuen 2030 Agendaren 17+1 helburuen artean?

- a) Hizkuntza gutxiagotzak dituzten komunitateak ahaldu eta ezagutarazi identitate desberdinak indartzeko.
- b) Eten digitala murriztu eta teknologia berriak hizkuntza gutzietan, batez ere gutxiagotuetan, eskuragarri jarri.
- c) Zerbitzu publikoetan, batez ere osasunaren eta justiziaren alorrean, komunitate desberdinen hizkuntzen erabilera bultzatu, bereziki komunitate indigenen kasuan.
- d) Herri eta kultura desberdinak kontuan hartzen dituzten hedabide sare eraginkorrak eratu elebitasuna arlo horretara ekarri.

36. Bikain-Euskaren Kalitate Ziurtagiriaren mailak zenbat dira?

- a) Bat.
- b) Bi.
- c) Hiru.
- d) Lau.

37. 150/ 2008 Dekretuaren arabera, nori EZ dio Elebidek urteko memoriaren berri eman behar?

- a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.
- b) Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari.
- c) Eusko Legebiltzarrari.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako herri administrazioei.

38. OSATEKen Hitzarmen Kolektiboak jasotzen duen "urteko produkzio-osagarriari" dagokionez,

- a) Zenbateko finko gisa sartzen da produktibitate-osagarriaren barruan, ordainsari finkoaren % 2koa.
- b) Zenbateko aldakor gisa sartzen da produktibitate-osagarriaren barruan, ordainsari finkoaren % 2koa.
- c) Zenbateko finko gisa sartzen da lanpostuaren osagarriaren barruan, ordainsari finkoaren % 2,5ekoa.
- d) Ehuneko aldakor bati dagokio urtero, egindako jardueraren arabera.

39. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana. Hizkuntza eskakizunak, lehentasunak eta derrigortasun datak kudeatzeko prozedura nola arautuko dira?

- a) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez.
- b) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren erabaki bidez.
- c) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren instrukzio bidez.
- d) Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren jarraibide bidez.

40. 10/82 Legearen arabera, zein data da zuzena?

- a) 1982-11-23.
- b) 1982-11-24.
- c) 1982-11-20
- d) 1982-11-22.

41. Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeen zerrendari buruzko 100/2018 Dekretuaren eranskinaren arabera, Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremua honako zerbitzu-erakunde hauek osatzen dute:

- a) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak eta Osatek, S.A. entitateak.
- b) Arabako ESlak, Arabako Errioxako ESlak eta Arabako Osasun Mentaleko Sareak.
- c) Uribeko ESlak, Santa Marina Ospitaleak eta Gorlizko Ospitaleak.
- d) Arabako Osasun Mentaleko Sareak, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareak.

42. 47/ 2012 Dekretuaren arabera Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea). Baliokide diren mailak egiaztatzetik salbuetsita dago.

- a) B1.
- b) C1.
- c) B2.
- d) C2.

43. Zein urtetan sortu zen Kudeaketa Aurreratuen Eredua (KAE)?

- a) 2012an.
- b) 2011n.
- c) 2013an.
- d) 2014an.

44. 47/2012 Dekretuaren arabera, hauetako zein esaldi da zuzena?

- a) Irakasleen hizkuntza-gaitasunari dagokionez ere, bilakaera bizkorra eta positiboa izan da, eta, egun, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen % 90ek baino gehiagok badu bere lanposturako behar duen hizkuntza-eskakizuna.
- b)) Irakasleen hizkuntza-gaitasunari dagokionez ere, bilakaera bizkorra eta positiboa izan da, eta, egun, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen % 95ek baino gehiagok badu bere lanposturako behar duen hizkuntza-eskakizuna.
- c) Irakasleen hizkuntza-gaitasunari dagokionez ere, bilakaera bizkorra eta positiboa izan da, eta, egun, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen % 85ek baino gehiagok badu bere lanposturako behar duen hizkuntza-eskakizuna.
- d) Irakasleen hizkuntza-gaitasunari dagokionez ere, bilakaera bizkorra eta positiboa izan da, eta, egun, irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleen % 80k baino gehiagok badu bere lanposturako behar duen hizkuntza-eskakizuna.

45. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana. Euskara planari buruzko adierazlean programa kontratuetan, noiz egingo dira ebaluazioak?

- a) Lehenengoa plangintzaldiko 2. urtean eta bigarrena 4. urtean.
- b) Lehenengoa plangintzaldiko 3. urtean eta bigarrena 6. urtean.
- c) Lehenengoa plangintzaldiko 3. urtean eta bigarrena 7. urtean.
- d) Lehenengoa plangintzaldiko 3. urtean eta bigarrena 5. urtean.

46. 10/1982 Legearen arabera, zer araupetzen du hirugarren atalburuak?

- a) Herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak.
- b) Euskararen irakaskuntzan erabilpena.
- c) Herri-Agintaritzaren ekintzak.
- d) Albisteak euskaraz jaso ahal izateko eskubidea.

47. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana. On-line prestakuntza. Zein adierazle EZ da zuzena?

- a) Euskarazko zeharkako prestakuntza-ikastaroen portzentajea.
- b) Euskarazko prestakuntza-eskaintza dagokien erakundeekin aztertu izanaren ebidentziak.
- c) Lehentasunezko hizkuntza euskara duten langileen elebidun portzentajea. jarraitzeko.
- d) Prestakuntza euskaraz jaso duten langile elebidunean portzentajea.

48. Baimen informatua emango da:

- a) Ahoz, oro har, nahiz eta idatziz jaso beharko den kasu jakin batzuetan, martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.
- b) Idatziz, kasu guztietan.
- c) Idatziz edo ahoz, pazientearen aukeran.
- d) Historia klinikoari eta osasun-arloko paziente profesionalen eskubide eta obligazioei buruzko martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuaren 32. artikuluan adierazitakoaren arabera.

49. 297/ 2010 Dekretua Euskara jakite-maila egiaztatzen duen ondorengo titulu eta ziurtagiriak Europako Erreferentzia Marko Bateratuen B1 mailarekin parekatzen dira. Zein da erantzun zuzena?

- a) HABEk kudeatutako 2. mailako eta B1 mailako ziurtagiriak HABE atxikita dagoen Sailak emana.
- b) Euskal Autonomiako herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan HAAEk emandako 1 hizkuntza eskakizuna.
- c) Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna.
- d) HABEk kudeatutako 2. mailako eta B2 mailako ziurtagiriak HABE atxikita dagoen Sailak emana.

50. Hezkuntzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleei aplikatzeko Irakaspostuen 1. hizkuntza-eskakizuna

- a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 milarekin dago parekatuta.
- b) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 milarekin dago parekatuta.
- c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 milarekin dago parekatuta.
- d) Ertzaintzan euskaren erabilera normalizatzeko prozesuaren esparruan emandako Ertzaintzako 1 hizkuntza-eskakizunarekin dago parekatua.

ERRESERBAKO GALDERAK

51. Txandakako lanaldiaren osagarria, Hitzarmen Kolektiboaren 8. artikulua deskribatzen duena:

- a) 12 hilekotan ordainduko da.
- b) Goizeko eta arratsaldeko txandetan lan egiten duten langileek jasoko dute.
- c) Osagarri mota hori ez dago jasota Hitzarmen Kolektiboaren 8. artikuluan.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

52. Uztailaren 4ko 187 Dekretua, baliokidetzak ezartzen dituena, argitaratzeko arrazoietako bat zer izan zen:

- a) 97/2010 Dekretuan jasota ez egotea Euskaltzaindiako B agiria.
- b) 97/2010 Dekretuan jasota ez egotea Euskaltzaindiako D agiria.
- c) 97/2010 Dekretuan jasota ez egotea Osakidetzako hizkuntza-eskakizunak.
- d) 97/2010 Dekretuan jasota ez egotea Ertzaintzaren hizkuntza-eskakizunak.

53. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana. Pertsonen sentsibilizazioa eta motibazioa. Zein da erantzun zuzena?

- a) Urtean bitan, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak barne-komunikazio bat egingo du profesional euskaldunetan identifikazio-sistema zabaltzen jarraitzeko.
- b) Urtean behin, Osasun sailburuak barne-komunikazio bat egingo du, paziente eta profesional euskaldunen identifikazio-sistema zabaltzen jarraitzeko Euskararen irakaskuntzan erabilpena.
- c) Urtean behin, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia barne-komunikazio bat egingo du, paziente eta profesional euskaldunen identifikazio-sistema zabaltzen jarraitzeko.
- d) Urtean bitan, Osasun sailburuak barne-komunikazio bat egingo du, paziente eta profesional euskaldunetan identifikazio-sistema zabaltzen jarraitzeko.

54. OSATEK SAn euskaren erabilera normalizatzeko planaren arabera, zenbat printzipio osagarritan oinarritzen da plana?

- a) Bi printzipio osagarritan.
- b) Bost printzipio osagarritan.
- c) Hiru printzipio osagarritan.
- d) Ez du printzipio osagarririk jartzen.

55. 150/ 2008 Dekretuaren arabera zer dira kontsultak?

- a) Hizkuntza arloan zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko herritarrek egiten dituzten proposamenak.
- b) Indarrean dagoen araudiaren gainean herritarrek aurkeztutako edozein informazio eskaera.
- c) Herritarrek haien eskubideak urratu direla uste dutenean bidaltzen dituzten idatzi eta jakinarazpenak.
- d) Herritarren egiten dituzten proposamenak hizkuntza arloan zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko.

56. 47/ 2012 Dekretuaren arabera, euskaraz egindako ikasketak 144 ECTS Baliokide diren mailak egiaztatetik salbuetsita dago.

- a) C1.
- b) B2.
- c) C2.
- d) B1.

57. 123/2008 Dekretua. Zer epe du aurreikusitako erakundeak Dekretu honetan erabakitakoari egokitzeko, Estatuaren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa alde batera utzi gabe?

- a) 18 hilabete.
- b) 12 hilabete.
- c) 6 hilabete.
- d) 24 hilabete.

58. Proposatutako ekintza-planen ezarpenari eta jarraipenari buruzko ekintzek, 2020ko Pazientearen Segurtasun Estrategiak aurreikusitako segurtasun-gorabeheren kudeaketaren barruan, honako hauek hartzen dituzte barnean:

- a) Ezarpena eta jarraipena sustatzea, ekintza bakoitzaren arduraduna, ezarpen-data eta jarraipenaren aldizkakotasuna zehaztuta.
- b) Ezarritako ekintzen eraginkortasuna aldizka ebaluatzea eta lortutako emaitzak talde kudeatzaileari eta gainerako erakundeari jakinaraztea.
- c) Emaitzen txostenak egitea eta aldian behin zabaltzea.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

59. Aitor Montes familia medikuaren iritziz, zein hiru baldintza bete beharko lituzke Osakidetzako III. Euskara-planak?

- a) Errealitate soziolinguistikoan oinarritua egotea, pertsona helburu izatea eta EHko egoera administratiboa erakundearen antolakuntza eta ingurune kulturala kontuan hartzea.
- b) Errealitate soziolinguistikoan oinarritua egotea, gizartea helburu izatea eta EHko egoera administratiboa erakundearen antolakuntza eta ingurune soziala kontuan hartzea.
- c) Errealitate soziolinguistikoan oinarritua egotea, pertsonak helburu izatea eta EHko egoera administratiboa erakundearen antolakuntza eta ingurune soziala kontuan hartzea.
- d) Ebidentzian oinarrituta egotea, pertsona helburu izatea eta EHko egoera administratiboa erakundearen antolakuntza eta ingurune soziala kontuan hartzea.

60. Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) erakundearen lehiakortasuna hobetzeko erreferentziazko eredia zer urtetan sortu zen gure inguruan?

- a) 2014an.
- b) 2015ean.
- c) 2016an.
- d) 2017an.